

5. GAIA: “Jaraunspena onartzearen eraginak”

I.-ARAUDIA

Kode zibila

Prozedura Zibilari buruzko Legea

II.-ONARPENAREN ERAGINAK, ORO HAR: JARAUNSLAREN EGOERA

Onartzearen eraginak jaraunslaren ikuspegitik aztertu behar dira, jaraunsla baita oinordeko unibertsala eta subjektu nagusia.

Deituak jaraunspena onartzen bada, **jaraunslle bihurtzen** da eta, ondorioz, kausatzailearen erlazio juridikoak (transmitigarriak direnak bakarrik) jasoko ditu *oinordetza unibertsalez*. Juridikoki kausatzaileak dituen erlazio juridiko orotan, jaraunslak hartzen du lekua haren ordez; hau da, orain, jaraunslak hartuko du kausatzailearen egintza juridiko guztien titulartasuna eragin guztietarako: haren eskubideak eta obligazioak, aktiboa zein pasiboa bereganatzen du jaraunslak (*cfr.* 112. eta 1157. artk.). Halaber, jaraunspenak berak sortutako obligazioak betetzeko erantzukizuna hartuko du, esate baterako, testamentuko xedapenetan ezarritako obligazioak (zorrak ordaintzea, legatuak entregatzea), administrazioak sortutakoak edo eta banatzeko zereginak sortutakoak.

Onartzeak, gainera, **atzeraeragina izango** du: *los efectos de la aceptación y de la repudiación se retrotraen siempre al momento de la muerte de la persona a quien se hereda* (1199. art.). Beraz, kausatzailea hil eta oinordetza irekitzen den unetik jaraunslle izan balitz bezala jokatuko da: oinordetzaren irekitzea, bokazioa, delazioa eta onarpena une berean gertatu izan balira bezala, alegia.

Onartze soila egin bada, **ondare-nahasketa** gertatzen da berehala: kausatzailearen ondasunak eta zorrak jasotzen ditu jaraunslak, legatuak barne, eta beraren ondarean txertatzen dira. Nahasketa horren ondorioz, haien artean zituzten eskubideak eta obligazioak iraungitzen dira, alderdi aktiboa eta pasiboa pertsona berean biltzen baitira: *queda extinguida la obligación desde que se*

reúnan en una misma persona los conceptos de acreedor y deudor (κzeko 1192.1. art.).

Aldiz, inbentario-onuraren arabera onartzen bada, kausatzailearen eta jaraunsearen **ondareek bananduta segituko dute**: *se exceptúa el caso en que esta confusión tenga lugar en virtud del título de herencia, si ésta hubiese sido aceptada a beneficio de inventario* (κzeko 1192.2. art.). Jaraunspenari eraentza berezia aplikatuko zaio: aparteko administraziora menperatu eta osorik kitatu arte ez da subrogaziorik gertatuko (κzeko 1023. art.).

Orain arte oinordekoen artean bi figura aztertu ditugun arren, jaraunselea eta legatu-hartzailea, beste bi hartu behar dira kontutan haiekin batera: **ALIKUOTA LEGATU-HARTZAILEA** eta **GAUZA JAKIN BATEN GAINENKO JARAUNSELEA**. Bi kategoria hibrido dira hauek. Azter ditzagun. Jaraunselea da titulu unibertselez jaraunspen osoa edo zati proportzional bat hartzen duena eta legatuduna, ordea, gauza jakin bat bakarrik jasotzen duena, titulu partikularrez, alegia. Erdibidean, gerta leike kausatzaileak oinordeko bat *alikuota legatu-hartzaile* gisa izendatzea, hau da, legatuduna baina jaraunspenaren zati proportzional baten, kuota baten; edo *gauza jakin baten gaineko jaraunsele* izendatzea. Kode zibilak honako hau dio 768. artikuluan: *el heredero instituido en una cosa cierta y determinada será considerado como legatario*. Kontrako zentzuan, beraz, kuota baten legatu-hartzaile izendatzen bada oinordekoa, jaraunselea kontsideratu behar dela dio legegileak. Hala, Kode zibilak soilik aurreikusten ditu bi kategoria: oinordekoa jaraunsele izendatzen da [jaraunselea zentzu hertsian edo alikuota legatuduna] edo legatu-hartzaile izendatzen da [legatuduna zentzu hertsian edo gauza jakin baten gaineko jaraunselea]. Ez ditu, ba, lau kategoria onartzen, bi baizik. Eta argi dago, legegileak kategoria hoiak eskaintzeko orduan oinordekoak jasotzen duena hartzen duela kontutan: kuota bat edo osotasuna jasotzen duenean, jaraunselea da; gauza jakin bat baldin bada, orduan legatuduna. **Erizpide objetiboa**, beraz: oinordekoak jaso behar duena kontutan hartzen duena. Jurisprudentiak ere gehienetan ildo hau jarraitzen duela aipatu beharra dago.

Autore gehienek, aldiz, **erizpide subjektibo** bati jarraitu behar zaiola diote: testatzailearen borondatea oinarri duena, hain zuzen. Zergatik ez dira existituko, ba, lau kategoria ezberdin, testatzaileak hala aukeratu nahi badu? Autore gehienek eritziz, testamentua interpretatzerakoan aztertu beharko da testatzailearen borondatea zein izan den eta horren arabera, dagokion eraentza juridikoa aplikatu oinordekoari [pentsa dezagun, adibidez, testatzaileak oinordeko bat legatu-hartzaile izendatu nahi duela, zorren erantzunkizunaz oinordekoa libratzeko, baina jaraunspenaren herena utzi nahi diola: hori alikuota legatu-hartzailea litzateke, legatudunaren eraentza juridiko bera baina kuota bat jasotzen]. Erizpide honen arabera, alikuota legatu-hartzailea ez litzateke jaraunselea, legatuduna baizik: ez du jaraunspena onartu behar, eta ez da, printzipioz, zorren erantzunle.

Gauza jakin baten gaineko jaraunslea, ordea, jaraunslea da, jaraunspena onartzen du eta zorren erantzunlea da. Kode zibilak erabiltzen duen erizpidearen kontrakoa da, beraz, honako hau: legatu-hartzaileari aplikagarria zaion eraentza aplikatzen jarraitu alikuota legatudunari, nahiz eta kuota bat jaso; eta jaraunsearen eraentza ezarri gauza jakin baten gaineko jaraunseari, nahiz eta gauza zehatz bat jaso.

III.-JARAUNSEAREN ERANTZUNKIZUNA

Behin eta berriz adierazi denez, jaraunseak kausatzailearen zorren erantzule izan behar du; bera bihurtzen da zordun, zorra ez baita beste inorena, eta pertsonalki behartuta dago prestazioa betetzera. Gainera, zamak ere hartzen ditu bere gain: kausatzailea hiltzeak sortutakoak (κzeko 902.1. art.), oinordetza irekizetik eratorriak (κzeko 1033. art.) eta kausatzailearen borondatez ezarritakoak.

Baina, erantzukizunari buruz, bi eraentza daude: jaraunseak bere ondarearekin ere erantzungo du (erantzukizun osoa), edo jaraunspenarekin bakarrik erantzungo du (erantzukizun mugatua). Bata edo bestea aplikatzea onartze motaren arabera erabakiko da:

(1) **Onartze soila baldin badago**, jaraunseak bere ondarearekin ere erantzungo du (*ultra vires hereditatis*): *por la aceptación pura y simple, o sin beneficio de inventario, quedará el heredero responsable de todas las cargas de la herencia, no sólo con los bienes de ésta, sino también con los suyos propios* (κzeko 1003. art.; cfr. κzeko 1911. art.).

(2) **Jaraunseak inbentario-onuraren arabera** onartzen badu berriz, jaraunspenarekin bakarrik erantzungo du (*intra vires hereditatis*): *el beneficio de inventario produce en favor del heredero los efectos siguientes: el heredero no queda obligado a pagar las deudas y demás cargas de la herencia sino hasta donde alcancen los bienes de la misma* (κzeko 1023.1. art.).

Gauza da erabakitzea ea **arau nagusia** zein den eta **salbuespena** zein den: erantzukizun mugagabea edo inbentario-onura. Kodeak ezarritako sisteman, arau nagusia erantzukizun mugagabea da eta salbuespena inbentario-onura. Azken horrek guztien interesak babesten ditu; hala ere, jaraunsearen esku geratzen da, legeak berari eman baitio bata edo bestea aukeratzeko ahalmena, eta hartzekodunek eta legatudunek ezin dute ezer egin erabaki horren inguruan. Zenbait zuzenbide-sisteman, legeak berak agintzen du ondareak bananduta segituko dutela kasu guztietan.

Horrela, onarpen soila dagoenean, jaraunseak jasotzen duenarekin eta bere ondare propioarekin zorren aurrean erantzuten duen heinean [kausatzailearen hartzekodun, senipartedun eta legatitudunen aurrean, alegia], inbentario-onuraz onartzen badu deituak, soilik erantzungo du zor hoiien aurrean jaraunspenetik jasotzen duenarekin (KZeko 1.031 eta 1.032 art). Ez dago ondare nahasketarik, beraz, inbentario-onuraz onartzen badu deituak, eta kausatzailearen kontra zeuzkan kredituak mantentzen ditu, orain jaraunspenaren kontra. Kasu honetan, jaraunseak zorrak *cum viribus* ordain ditzake, hau da, jasotzen dituen ondasunekin; edo *pro viribus*, jaso behar dituen ondasunen balioa mugatzat hartuta, nahi duen ondasunekin.

Salbuespen bezala, hala ere, **legatitudunak jaraunspenaren zorren aurrean erantzungo** du, Kode zibilak 891. artikuluan aurreikusten duen kasuan (eta aurrerago aztertuko ditugun beste zenbait kasutan ere): *si toda la herencia se distribuye en legados, se prorratearán las deudas y gravámenes de ella entre los legatarios a proporción de sus cuotas, a no ser que el testador hubiera dispuesto otra cosa*. Kasu horretan, hartzekodunek jaraunspenari buruzko judiziora jo dezakete jaraunseak dauden kasuetan bezala eta jaraunspena administraziopean jartzea eskatu. Legatitudunak ez badira zati alikuoten titular, hartzekodunak arduratuko dira hori administratzeaz. Kontulariak izendatu beharko dira zorrak ordaintzeko eta jaraunspena zatitzeko (Pziko 782. art. eta hurrengoak.).

Aurreko lerroaldean adierazitakotik, zera ondorioztatzen da:

(1) Legatitudunen erantzukizuna jaraunspenera mugatzen da. Nolabait, legeak berak ezartzen du (*ope legis*) inbentario-onuraren arabera onartu dutela. Kausatzaileak adierazitako borondateak konponbideak zehaztu eta argitzen baditu, ez da arazorik sortuko. Baina, legatuen objektua gauza generikoak badira, adibidez, ondasun higigarriak, edo bitxi guztiak, horiek zehaztea ez da erraza eta, halaber, badirela frogatzea zaila izan daiteke. Gainera, legatitudunak berak zuzenean hartzen baditu, gero egingo duen inbentarioaz fidatu behar dugu. Halako kasuetan, interpreta daiteke bere ondasunekin ere erantzun beharko lukeela (KZeko 1024. art. analogiaz aplikatuz).

(2) Noraino erantzun behar duen zehaztu behar da. Muga jartzeko bi aukera daude: legatuaren balioa (*pro viribus*) edo jasotako ondasunak (*cum viribus*). Gauza legatitudunak berak duen bitartean, jasotakoarekin edo horren balioarekin erantzun behar du: *estos (los legatarios) no estarán obligados a responder del gravamen sino hasta donde alcance el valor del legado* (KZeko 858.2. art.). Beraz, legatitudunak legatuak duen balioraino erantzungo du; hala, zorrak ordaintzeko, lehenik, ez dago jaraunspena bildu beharrik, gauzak saltzen hasi beharrik ere ez dago, eta hartzekodunek ez daukate gauza bakoitzaren atzetik joaten ibili beharrik.

(3) Legatudunen arteko erantzukizuna mankomunatua da; izan ere, Kodeak ez du arau berezirik ezartzen eta arau orokorra mankomunatua da. Hala eta guztiz ere, kausatzaileak erantzukizun solidarioa ezar dezake bere azken borondatea adierazteko egintzan.

(4) Kausatzaileak, bere borondatez, legatudunen erantzukizuna bana dezake gura duen moduan (txikitu, handitu, baztertu).

Seniparteduna, bestalde, zorren erantzunle izango da dagokion eraentzan, hau da, bere senipartea jaraunse edo legatudun gisa jaso duen kontutan hartuta. Senipartedun bezala ez dauka, berez, erantzukizunik zorren aurrean: kobratuko du senipartea aktibo nahiko baldin badago soilik, eta zorren aurrean erantzungo du jaraunse gisa jaso badu bere senipartea edo legatu-hartzaile bezala hartu badu, Kodeak ezartzen dituen salbuespen kasuetan.

Usufruktudunak jaraunspeneko zorrak ordain ditzake, baina, jaraunselea ez denez, ordaindutakoa itzultzeko eskatzeko eskubidea izango du: *Si el usufructo fuere de la totalidad o de parte alícuota de una herencia, el usufructuario podrá anticipar las sumas que para el pago de las deudas hereditarias correspondan a los bienes usufructuados, y tendrá derecho a exigir del propietario su restitución, sin interés, al extinguirse el usufructo. Negándose el usufructuario a hacer esta anticipación, podrá el propietario pedir que se venda la parte de los bienes usufructuados que sea necesaria para pagar dichas sumas, o satisfacerlas de su dinero, con derecho, en este último caso, a exigir del usufructuario los intereses correspondientes* (kzeko 510. art.).

IV.-JARAUNSPENA ADMINISTRATZEA ETA KITATZEA

Administratzeari buruz, zenbait arau jasotzen ditu Kodeak. Batetik, jaraunseleak ardura arrunta izan beharko du ondasunak zaintzeko (kzeko 1031. art.) eta fidantza jarri beharrik ez dauka. Kodeak, gero, hiru suposamendu arautzen ditu bereziki:

(1) **Ondasunak saltzea**: *cuando para el pago de los créditos y legados sea necesaria la venta de bienes hereditarios, se realizará ésta en la forma establecida en la Ley de Enjuiciamiento Civil respecto a los ab intestatos y testamentarias, salvo si todos los herederos, acreedores y legatarios acordaren otra cosa* (kzeko 1030. art.).

(2) **Gastuak**: *las costas del inventario y los demás gastos a que dé lugar la administración de la herencia aceptada a beneficio de inventario y la defensa de sus derechos, serán de cargo de la misma herencia. Exceptúanse aquellas costas en que el heredero hubiese sido*

condenado personalmente por su dolo o mala fe. Los mismo se entenderá respecto de las causadas para hacer uso del derecho de deliberar, si el heredero repudia la herencia (κzeko 1033. art.).

(3) **Kontuak ematea:** *no alcanzado los bienes hereditarios para el pago de las deudas y legados, el administrador dará cuenta de su administración a los acreedores y legatarios que no hubiesen cobrado por completo, y será responsable de los perjuicios causados a la herencia por culpa o negligencia suya (κzeko 1031. art.); baina, administratzailea jaraunselea ez den beste pertsona bat bada, Kodeko 1032.2. artikulua dio: *si la herencia hubiese sido administrada por otra persona, ésta rendirá al heredero la cuenta de su administración, bajo la responsabilidad que impone el artículo anterior.**

Jaraunselek jaraunspeneko ondasunak eskuratu aurretik, zorrak ordaindu behar ditu. Jaraunspena kitatzeko, aipatutako bereizketa izan behar da kontuan, hots, onartze soila dagoen edo inbentario-onuraren arabera onartu den.

Lehenik, beraz, **onartze soila** egin bada, kausatzailearen eta jaraunselearen zorrak eta legatuak ordaintzeko obligazioak nahasi egiten dira ondarearen pasibo bakarrean, eta ondare osotik ordainduko dira. Dena den, baieztapen hori zehaztu egin behar da, hartzekodunen artean lehentasunak ezarri behar baitira eta ondareen artean ere nolabaiteko banaketa egin behar baita: lehentasuna dute kausatzailearen hartzekodunek legatadunen aurrean, eta azken horiek, jaraunselearen hartzekodunen aurrean; kausatzailearen ondareari dagokionez behintzat. Ondare banaketa hori ez dator Kodean berariazko aipamenez araututa, baina interpretazio sistematikotik ondoriozta daiteke:

(1) Kausatzailearen hartzekodunen lehentasun hori esanbidez jasotzen da: *los acreedores reconocidos como tales podrán oponerse a que se lleve a efecto la partición de la herencia hasta que se les pague o afiance el importe de sus créditos (κzeko 1082. art.).*

(2) Gainera, inbentario-onuraren arabera onartzen denean zorrak ordaintzeko lehentasuna ezartzen bada, inbentario-onuraren araberrako onartzerik ez dagoenean ere eutsi beharko litzaioke lehentasun horri, ezen jaraunselek, gutxienez, inbentario-onuraren araberrako onartzea egongo balitz bezala erantzun behar baitute. Ondorioz, ezarritako lehentasun-arauak aplikagarri dira inbentario-onuraren araberrako onartzeari buruzko eraentzan (κzeko 1027, 1028, 1029, 1034 eta 1082. art.ak).

(3) Azkenik, aurrekari historikoak ikusiz gero ere, aspalditik agertzen da ondare-banaketa hori Espainiar Estatuko ordenamenduan. Arrazoa argi dago: jaraunselea kaudimenik gabea bada, haren hartzekodunek

ezin dute jaraunspenean parte hartu, kausatzailearen hartzekodunak kaltetuak suerta daitezkeelako.

Laburbilduz, lehentasunak honela agertzen dira: lehenik, **jaraunspenaren hartzekodunak**, legatudunen gaisetik, legatua gauza zehatza eta jakina izan arren; gauza zehatzak, askotan, zuzenean eskuratzen dira eta ezin dira kausatzailearen zorrak ordaintzeko erabili; edozein auzitan, legatu-hartzaileak bere eskubidea baliatzeko aukera du. Gero, **legatudunak** kokatzen dira, jaraunsearen hartzekodunen aurretik eta, legatudunen artean, Kode Zibileko 887. artikulua ezartzen ditu lehentasunak. Azkenik, **jaraunsearen hartzekodunak**.

Lehentasun eta banaketa hori gauzatzeko, eskaera egin behar dute hartzekodunek zein legatudunek. Epaileak, eskariari erantzunez, erabakiak hartuko ditu: inbentarioa egitea, prebentziorako oharrak eskatzea, jakinarazpenak egitea (Pzko 782 eta 792. art.ak). Banaketa eskatu duten hartzekodunek eta legatudunek kobratu ahal izango dute jaraunspenaren kontura. Bestela, kobratzeko eskubidea bakarrik izango dute eskaerarik egin ez dutenek, lehentasun berezirik ezarri gabe; kreditu motaren arabera eta Hipoteka Legearen arabera ezarritako lehentasun orokorrak bakarrik jarraituko dira.

Bigarrenik, **inbentario-onuraren arabera** onartzen bada, jaraunseak jaraunspenak dituen zorren erantzule izan beharko du, jaraunsele baita. Baina haren erantzukizuna mugatua dago; eta, horregatik, jaraunspena nola administratu ere mugatu behar da eta haren jardura ere arautu. Hasteko, Kodeko 1026.1. artikulua zera agintzen du: *hasta que resulten pagados todos los acreedores conocidos y los legatarios, se entenderá que se halla la herencia en administración.*

Jaraunspena administraziopean jartzeko arrazoia ez da, nagusiki behintzat, hura kontserbatzea, kitatzea baizik. Administratzea inbentario-onuraren arabera onartzearekin batera hasi eta hartzekodun eta legatudun guztiei ordaindutakoan amaituko da.

AGEE 1869/6/21, 1873/12/12 eta 1885/4/18: “No existe herencia sino después de pagar las deudas y legados”.

Zorrak ordaintzeko, honako erregela hauek segituko dira:

(1) Hasteko, galdagarriak diren zorrak ordainduko dira. Oraindik epe-mugara ailegatu ez direnak kontuan izan eta dagokien garaian ordainduko dira.

(2) Zorrak ordaintzeko ondasun nahikorik ez balego, konkurtso-deklarazioa eskatu beharko da. Hain zuzen, Konkurtso Legeko 1.2. artikulua huxe dio: *El concurso de la herencia podrá declararse en tanto no haya sido aceptada pura y simplemente.*

(3) Interesdunen artean adostasunik lortzen ez bada, Kode Zibileko 1028. artikulua araberak finkatuko da ordainketaren lehentasuna: *cuando haya juicio pendiente entre los acreedores sobre la preferencia de sus créditos, serán pagados por el orden y según el grado que señale la sentencia firme de graduación. No habiendo juicio pendiente entre los acreedores, serán pagados los que primero se presenten; pero, constanding que alguno de los créditos conocidos es preferente, no se hará el pago sin previa caución a favor del acreedor de mejor derecho.*

(4) Legatuei buruz, kontuan izan honako arau hauek: *durante la formación del inventario y el término para deliberar no podrán los legatarios demandar el pago de sus legados* (kodeko 1025. art.); *el administrador no podrá pagar los legados sino después de haber pagado a todos los acreedores* (kodeko 1027. art.).

Jaraunspena kitatu ondoren, beste hartzekodun batzuk ere ager daitezke. Kodeko 1029. artikulua ematen du hasierako erantzuna: *si después de pagados los legados aparecieren otros acreedores, éstos sólo podrán reclamar contra los legatarios en el caso de no quedar en la herencia bienes suficientes para pagarles.* Ondareen nahasketa gertatu ondoren agertzen badira jaraunspenaren hartzekodunak, jaraunselek erantzun beharko diete zor horiei, baina erantzukizunak badu muga: jasotako ondarea. Gainera, ez du erantzungo jaso dituen ondasun berberekin, haien balioarekin baizik. Legatudunak badaude eta jaraunselek ez badu ondasunik zor hoiei aurre egiteko, legatudunei erreklama diezaiekete hartzekodunek.

V.-JARAUNSPEN ERKIDEGOA

Jaraunspen batera pertsona bat baino gehiago deitua dagoenean eta berau batek baino gehiago onartzen duenean jaraunspen komunitatea edo erkidegoa sortzen da. Guztiak dira jaraunse aldi berean, eta, beraz, guztiak ondasunen titular, hauek banatzen diren arte. Hala, jaraunspenaren onarpenetik banaketara ematen den egoera da jaraunspen komunitatea, soilik jaraunse bat baino gehiago dagoenean eta ondasunak banatu arte.

Jaraunselek, erkidegoa sortzen denean, ez dute kuota zehatzik jaraunspenean. Jaraunse bakoitzak proportzio bat dauka osoarekiko: eskubide *in abstracto* bat, kuota bat jaraunspen osoarekiko, baina ondasun zehazetan adierazi gabe. Behin jaraunspena kitatu ondoren ondasunak banatzen direnean, orduan bihurtuko da eskubide abstraktu hori ondasun zehatzen gaineko eskubidean, ez lehenago. Bitartean, erkidegoa osatzen dutenek osoarekiko zati bat izango dute bakarrik. Erkidegoa osatzen duen ondare masa, autonomoa da, izatez,

eta gozatu, xedatu eta administratuko beharko da. Ez da, berez, jaraunseen ondasunekin nahastuko baina negozioak egin ahal izango dira erkidegoarekin, bai kanpokoek zein jaraunselek ere.

Eraentzaren inguruan, honako erizpideak jarraitu beharko dira, jakinik Kode zibilak ez duela jaraunspen komunitatea arautzen:

(1) **Erregimen horren iturriak:** lehenik, Kode Zibilaren nahitaezko xedapenak aplikatu behar dira; gero, kausatzailearen borondatea eta jaraunselekideek adostutako itunak; ondoren, jaraunspena zatitzeari eta desegiteari buruzko xedapenak, baldin eta aplikatu badaitezke (hori da jaraunspen-erkidegoari buruz Kodeak arautzen duen eremu bakarra: desegitea banaketaren bidez); erkidego arruntaren inguruko arauak (KZeko 392 eta hurrengo artikulua); eta, azkenik, oinordetzari buruzko araudi orokorra, aplikatu daitezkeen.

(2) **Subjektua:** zati alikuota baten gainean eskubiderik duen oro. Jaraunselek eta alikuota legatu-hartzaileak. Legatudunak izan daitezke, baina soilik jaraunspen osoa legatuetan banatu bada. Banaketa eskatzeko legitimazioa aitortu zaie (PZko 782.1. art.).

(3) **Objektua:** kausatzailearen ondasun eta eskubide guztiek osatzen dute, kausatzailearen ondasun zehatz baten gaineko legatua izan ezik (KZeko 882.1. art.). Ondasun multzo horrek kausatzaileak dituen zorrei erantzungo die gainerako aktiboarekin batera.

(4) **Edukizari, erabilerari eta gozateari buruz:** kide bakoitzak bere kuota autonomoa du eta, beraz, edozein jabe-kidek erabiltzeko duen eskubide bera izango du hark; alegia, kidedukitza dago, eta horri buruzko erregimena aplikatuko da (KZeko 394. art.). Baina, jaraunspena administraziopean jartzen bada, administratzaileen esku egongo da jaraunspena eta horrek kontuak eman beharko dizkie gainerakoek. Fruituei buruz berriz, Kode Zibileko 1063. artikulua zera dio: *los coherederos deben abonarse recíprocamente en la partición las rentas y frutos que cada uno haya percibido de los bienes hereditarios, las impensas útiles y necesarias hechas en los mismos, y los daños ocasionados por malicia o negligencia*: hau da, jasotako fruituak erkidegora ekarri behar ditu jaraunselek eta banaketa egiten denean jasoko ditu. Egoki likidatu beharko da, beraz, erkidegoa indarrean dagoen bitartean egindako 'operazio' kopurua.

(5) Jaraunselekide guztiek **ondarea kontserbatzen** jarduteko eskubidea dute, erkidegoaren onurako baldin bada. Horregatik, edozein jaraunselekidek eskubidea du kausatzaileari zegozkion akzioetan edo hura hil ondoren jaraunspenaren alde sortutakoetan parte hartzeko, baldin eta ondare komunaren onura badakar.

(6) **Administratzea:** kausatzaileak ezar dezake eta, bestela, jaraunselekideek kapitalaren gehiengoz (KZeko 1.063. art. gogoratu); administratze judiziala ere egon daiteke, norbaitek eskatu badu; eta,

azken finean, horiek izan gabe ere, jabekidetzaren arauak aplika daitezke.

(7) **Xedatzeko ahalmena:** kide bakoitzak bere zatia xedatzeko ahalmena du, erkidegoari buruzko araudia aplikatuztik ondorioztatzen denez. Zati osoa hartu behar du eta ez ondasun jakin bat; gainera, besteek atzera-eskuratze (erreturto) eskubidea dute: *si alguno de los herederos vendiere a un extraño su derecho hereditario antes de la partición, podrán todos o cualquiera de los coherederos subrogarse en lugar del comprador, reembolsándole el precio de la compra, con tal que lo verifiquen en término de un mes, a contar desde que esto se les haga saber* (KZeko 1067. art.). Jaraunspeneko ondasunak xedatzeko (esate baterako, materialki suntsitzeko edo aldakuntzak egiteko, edo juridikoki saltzeko edo dohaintzan emateko) kide guztien adostasuna beharko da.

(8) **Jaraunselekideten erantzunkizuna:** Argi dago onartze soila egin duenak jasotakoarekin eta bere ondare propioarekin erantzuten duela; inbentario-onuraz onartu duenak, aldiz, bakarrik jasotakoarekin. Edozelan ere, erantzunkizun mugatua izan ala ez izan, denak dira zorren erantzunle, bakoitza bere neurrian, eta denon esku dago jaraunspena kitatzea. Horrela, hartzekodunen aurrean, haien erantzunkizuna SOLIDARIOA dela deritzote autore gehienek eta jurisprudentziak, bai banaketa baino lehen (erkidegoa indarrean dagoenean), baita banaketa burutu ondoren ere, KZeko 1.084. artikulua dioen bezala: *hecha la partición, los acreedores podrán exigir el pago de sus deudas por entero de cualquiera de los herederos que no hubiere aceptado la herencia a beneficio de inventario, o hasta donde alcance su porción hereditaria, en el caso de haberla admitido con dicho beneficio. En uno y otro caso el demandado tendrá derecho a hacer citar y emplazar a los coherederos, a menos que por disposición del testador, o a consecuencia de la partición, hubiere quedado él solo obligado al pago de la deuda.*

Jaraunselekideten arteko erantzunkizuna solidarioa izanik, beste norbaiten ordean ordaintzen duenak haren aurka joateko aukera du: itzultze-akzioa du (KZeko 1145 art.). Besteen aurka joateko, bakoitzari dagokion proportzioan bakarrik joan daiteke. Kodeak, bereziki, bi artikulua jasotzen ditu arazo horri buruz:

(1) Kodeko 1085. artikulua: *el coheredero que hubiese pagado más de lo que corresponda a su participación en la herencia, podrá reclamar de los demás su parte proporcional. Esto mismo se observará cuando, por ser la deuda hipotecaria o consistir en cuerpo determinado, la hubiese pagado íntegramente. El adjudicatario, en este caso, podrá reclamar de sus coherederos sólo la parte proporcional, aunque el acreedor le haya cedido sus acciones y subrogándole en su lugar.*

(2) Kodeko 1087. artikulua: *el coheredero acreedor del difunto puede reclamar de los otros el pago de su crédito, deducida su parte*

proporcional como tal heredero, y sin perjuicio de lo establecido en la sección quinta, capítulo v de este título (inventario-onuraren arabera onartu ez arren).

Jaraunspen-erkidegoa iraungiko da: jaraunspena kideen artean zatitzen bada; erkidego arrunta izatea erabakitzen badute; sozietate bat sortu eta bakoitzak bere kuota ekartzen badu.

ENZOE 1988-5-9: “Aceptada la herencia de los causantes, o disuelta la sociedad de gananciales, surge sobre los respectivos patrimonios en liquidación una comunidad que, en cuanto a los actos dispositivos, se rige ordinariamente por las reglas de las demás comunidades y, por tanto, se exige y basta para el acto dispositivo sobre un bien concreto la unidad de todos los cotitulares, sin que sea necesario para su validez ni la previa liquidación y adjudicación de bienes concretos ni el consentimiento de los acreedores, pues, como regla, las deudas no menoscaban las facultades dispositivas de los deudores”.

AGE 1994/1/31 (RAJ 642) : “La finca «Los Pinos» forma parte del caudal relicto en virtud de sentencia firme del Tribunal Supremo, pertenece a todos los coherederos, y, por ello, fue nula la partición que atribuía la finca a los hermanos recurrentes. Como bien común derivado de la herencia paterna ha de ser objeto de división en los términos fijados por el causante, cuyo resultado es que en las cosas comunes no partidas les corresponden 8/9 a los recurrentes como consecuencia de sumar a los dos tercios de libre disposición y mejora la parte correspondiente a su legítima estricta. Pero tan gran participación, por razonables que sean las esperanzas de que en la división se les adjudique la finca «Los Pinos» a uno o a los dos hermanos, no permite conculcar lo dispuesto en la Ley respecto a las cosas comunes, para cuya enajenación debe concurrir el consentimiento de todos los titulares del dominio, pues así se desprende de los arts. 348, 397, 399 y concordantes, del Código Civil; y por ser una comunidad hereditaria hasta que no se efectúe la partición por cualquiera de los modos admitidos en derecho (arts. 1051 y ss.) no adquieren los herederos la propiedad exclusiva (art. 1068), según dispone la reiterada jurisprudencia de esta Sala”.

VI.-IRAKURGAIK

1. Erantzukizuna

ALBALADEJO GARCÍA, Manuel (1967): “La responsabilidad de los herederos por deudas del causante antes de la partición”, *Anuario de Derecho Civil*, 479-513.

GINOT LLOBATERAS, Francisco (1950): "La responsabilidad del heredero simple por deudas y legados en Derecho común y foral", *Anuario de Derecho Civil*, 1057-1099.

LÓPEZ CONTRERAS, F. J. (1965): "La responsabilidad *intra vires* y *ultra vires* en la herencia y en los legados", in *Estudios de Derecho Privado II* (Antonio de la E. MARTÍNEZ RADIO), Madril, Editorial Revista de Derecho Privado, 416-451.

2. Jaraunspen-erkidegoa

VARA GONZÁLEZ, José Manuel (1997): "Comunidad hereditaria y enajenación de inmuebles", *Revista Jurídica del Notariado*, 22. zb., 21-158.

VII.-AZTERTZEKO EPAIAK

AGE 1997/4/26: DOMÍNGUEZ LUELMO, Andrés (1997): *Cuadernos Cívitas de Jurisprudencia Civil*, 973-984.

AGE 1998/10/17: NÚÑEZ IGLESIAS, Alvaro (1999): *Cuadernos Cívitas de Jurisprudencia Civil*, 363-370.

VIII.-KOMENTATZEKO TESTUAK

(1) AGE 1990/10/11 (RAJ 7856): Por lo que respecta a la mitad indivisa de la que fue propietaria doña Pilar C. L., han de tenerse en cuenta los antecedentes o presupuestos (alguno de ellos ya relacionado en el fundamento primero de esta resolución) siguientes: 1.º Don Octaviano M. C. es el hijo único y también único heredero abintestato (así declarado por auto de fecha 15 de febrero de 1960 del Juzgado de Primera Instancia de Chinchilla de Monte-Aragón) de doña Pilar C. L., cuya herencia aceptó pura y simplemente mediante escritura pública de manifestación de herencia, de fecha 16 de febrero de 1960, autorizada por el Notario de Chinchilla de Monte-Aragón, don Francisco C. D. de L.-D. (número 70 de su protocolo), en la que la mitad indivisa objeto de litis figura relacionada entre los bienes integrantes del caudal hereditario de dicha causante (número 1 del inventario de bienes). 2.º Don Octaviano M. C., en su escrito de contestación a la demanda del proceso a que este recurso se refiere, después de reconocer la celebración del contrato de compraventa litigioso y de manifestar que es el actual y único propietario de dicha mitad indivisa en virtud de la ya referida escritura de manifestación de herencia y aducir que «jamás se ha negado a otorgar escritura de

la parte de la finca vendida de su propiedad a favor de la demandante», agrega textualmente: «Concluyendo: mi representado, en lo que al mismo compete, está dispuesto a otorgar la oportuna escritura a la demandante, siempre que por la misma, se le haga entrega de la cantidad que le adeuda, teniendo en cuenta el número de pesetas que corresponden a las del año 1955» (folio 80 vuelto de los autos). Sobre la base de los referidos antecedentes y sin dejar de mantener invariable el ya dicho resultado probatorio obtenido por la sentencia recurrida, la verdadera *quaestio iuris* que plantea el motivo y, por tanto, el tema litigioso, ha de situarse en el ámbito del artículo 1259 del Código Civil que, aunque no citado expresamente por la recurrente como infringido, ha de entenderse indirectamente aludido con la invocación que hace de uno de los preceptos reguladores del mandato, con los que aquél guarda estrecha conexión, lo que obliga a esta Sala a estudiar y resolver la verdadera esencia jurídica del motivo con el rigor técnico que corresponda a este recurso extraordinario. Si bien el artículo 1259 del Código Civil dice que el contrato celebrado a nombre de otro por quien no tenga su autorización o representación legal será nulo, ese mismo artículo 1259 y el 1727 del mismo Cuerpo legal admiten que el negocio concluido en nombre del representado sin poder de representación o con extralimitación de poder puede ser ratificado por la persona a cuyo nombre se otorgó, cuya ratificación purifica el negocio (*ratihabito mandato reputatur*) y lo hace válido desde su origen y durante la pendencia de la *condictio iuris* que la ratificación supone -Sentencias de esta Sala de 14 de diciembre de 1940, 7 de julio de 1944, 27 de mayo de 1958, 25 de octubre de 1975, 15 de noviembre de 1977, 18 de septiembre de 1987 entre otras-. Si la expresada doctrina se pone en conexión con la subrogación del heredero en la situación jurídica del causante, que se opera por efecto de la sucesión *mortis causa*, y con la confusión que la aceptación pura y simple de una herencia opera entre los derechos del causante y los del heredero (artículos 659, 661 y 1023 del Código Civil, este último *a sensu contrario*), ha de concluirse que en el presente supuesto se ha producido una verdadera y propia ratificación del contrato de compraventa litigioso, llevada a cabo por el heredero único de doña Pilar C. L. (recuérdese su contestación a la demanda), que, además, es el que celebró dicho contrato como mandatario y a quién únicamente podría perjudicar tal ratificación, por lo que el aludido contrato (en lo referente, repetimos, a la mitad indivisa que fue propiedad de doña Pilar C. L. y actualmente lo es de su hijo y heredero único, don Octaviano M. C.) ha de considerarse válido y eficaz, procediendo, en consecuencia, la estimación del motivo en lo que atañe a dicha mitad indivisa.

(2) AGE 1989/5/8 (RAJ 3673): Se concluye el carácter de cotitular de todos los bienes hereditarios del legítimario en tanto no se practique la partición de la herencia, en la que ha de respetarse cualitativa y cuantitativamente la legítima a cuyo pago quedan afectos, entre tanto, todos los bienes relictos, careciendo el heredero testamentario

de facultades dispositivas sobre ellos en tanto subsista la comunidad sin que pueda enajenar por sí solo bienes determinados si no es con eficacia puramente condicional, o sea, subordinada al hecho de que la cosa vendida le sea adjudicada en la partición -Sentencia de 5 de julio de 1958-. Dado el carácter ganancial del piso 4.º izquierda de la casa n.º 78 del Paseo de las Delicias, en Madrid, único bien que, al parecer, integraba esa sociedad, los derechos que sobre el mismo ostentaba la esposa doña Valeriana O. D. integran el caudal hereditario dejado a su fallecimiento, por lo que aceptada la herencia por sus herederos, sin que por el contador-partidor testamentario ni por aquéllos se haya realizado la partición de la herencia, el heredero testamentario no podía disponer válidamente de ninguno de los bienes integrantes del caudal relicto, como establece desde antiguo la jurisprudencia -Sentencias de 4 de abril de 1905, 11 de abril de 1957, 20 de enero de 1958, 25 de noviembre de 1961 y 21 de marzo de 1968- siendo nulos de pleno derecho los actos de disposición realizados por un heredero sin la representación de los demás (Sentencia de 19 de noviembre de 1929); en consecuencia, al no haberse acreditado en autos que doña Marcela D. S., legitimaria de su hija doña Valeriana, haya renunciado sus derechos como tal a favor del heredero testamentario don Cirilo L.-P., carecía éste de poder de disposición sobre la citada vivienda al no haberse practicado la división del caudal, por lo que debe ser declarado nulo de pleno derecho el contrato de compraventa instrumentado en la escritura pública de 27 de mayo de 1982.

(3) AGE 1966/3/17 (RAJ 1227): El heredero no puede disponer de bienes singulares de la herencia mientras no se lleve a efecto su partición -SS. de 26 enero 1906, 11 abril 1953 y 6 mayo 1958-, por no disfrutar hasta entonces más que de un derecho impreciso e inalienable sobre las cosas de que se componga, no menos exacto es, que para que el mencionado art. 1068 entre en juego, es imprescindible que, de forma clara y evidente, se acredite la previa existencia y subsistencia de la comunidad hereditaria a la que la partición deba poner fin, es decir, la de una verdadera «universitas» en la que respecto a una pluralidad de sujetos, se agrupen diversas relaciones patrimoniales activas y pasivas que integren no sólo la totalidad de los bienes, derechos y acciones que procedan de «cuius», sino también las deudas y obligaciones que éste tuviere o hubiere impuesto en su testamento (art. 659) de las que solidariamente responderán sus componentes (art. 1084), situación completamente distinta de la que representa una mera cotitularidad de legatarios sobre bienes concretos y determinados del caudal relicto, en la que el derecho sucesorio de cada uno de ellos lo es a título particular y no universal y, como en la hipótesis aquí controvertida, se practicó la partición de la herencia sobre que versa el litigio en 12 junio 1917 y en ella se confeccionó una hijuela en la que se incluyeron las fincas afectadas por el legado establecido en la cláusula 13 del testamento de 13 abril 1910, no puede ponerse en duda, que en tal momento se extinguió la comunidad hereditaria de

donde dichos bienes procedían, y que en cuanto a ellos se constituyó una nueva sometida a las prescripciones del Título III del Libro II del Código Civil, que no impide a los distintos partícipes enajenar la porción indivisa que les corresponda sobre cada uno de los inmuebles, comprendidos en el legado, siempre que lo hagan, como aquí ha sucedido, con la limitación impuesta por la condición resolutoria a que se hallaba vinculado su derecho.

(4) AGE 2004/11/5: La comunidad, que en el presente caso era la accionista de la sociedad anónima demandada, era una comunidad hereditaria formada por los coherederos, del primitivo accionista, en que no se ha practicado la partición. Cuya comunidad implica que cada sucesor, miembro de la misma, tiene derecho al conjunto que integra el contenido de la herencia, pero no sobre los bienes hereditarios concretos; es decir, en el presente caso, cada coheredero, como el demandante, no es titular de acciones, sino titular junto con los demás coherederos, del patrimonio del que forma parte el conjunto de acciones; así, el accionista no es el coheredero, sino la comunidad. Cuya comunidad no da lugar a una copropiedad de cada una de las cosas, sino que éstas forman parte de la misma (S 25 May. 1992), de la que sus miembros tienen derechos indeterminados (S 6 Oct. 1997) y cuya naturaleza es de comunidad germánica (S 19 Jun. 1995). Respecto a esta comunidad, el art. 66.2 de la LSA exige que una persona miembro de una misma ejerza los derechos de socio; persona designada, dice el texto legal; la cual no es representante, en el sentido de representación voluntaria, en la que el art. 106.2 exige que el poder de representación sea escrito y especial para cada junta, salvo el caso de representación familiar que contempla el art. 108. Asimismo, esta comunidad no está regulada por los arts. 392 y ss. del CC que contempla la comunidad *pro indiviso* romana, con distinción de cuotas y esencial divisibilidad (art. 400) que nada tiene que ver con la comunidad hereditaria, germánica.

Por tanto, se desestiman ambos motivos. El segundo, porque no se aplica el art. 106 sino el 66 de la LSA; el tercero, porque no se aplica el art. 398 del CC. En uno y otro caso, es de destacar lo que resalta la sentencia de instancia, que es el carácter familiar y el consentimiento tácito (o tolerancia): durante largos años el demandante aceptó y consintió la actuación de su hermano en las Juntas, como designado tácitamente por la comunidad hereditaria.

(5) AGE 1935/4/30 : Cualquiera que sea la naturaleza jurídica de la comunidad patrimonial formada por los coherederos antes de la partición, ya se le considere como una pura indivisión de tipo romano, ya como una copropiedad en mano común o, lo que parece más aceptable en nuestro derecho, como un tipo especial de comunidad, comprendido en el marco general del a comunidad de bienes y derechos que regula el Título III del Libro II del Código Civil, pero que tiene características propias y un principio de

régimen orgánico que la erigen en una categoría jurídica intermedia entre el condominio ordinario y la persona moral, no ofrece duda ninguna que todos los coherederos, conjuntamente, pueden realizar con plena validez y efectos, actos de disposición sobre bienes particulares de la herencia, tanto en provecho de uno de los coherederos como en beneficio de los terceros de un tercero extraño a la comunidad, ya que tales adjudicaciones, bien se construyan como verdaderos casos de enajenación colectiva de singular objeto hereditario o bien como una pluralidad de disposiciones simultáneas sobre las partes alícuotas del mismo, siempre estarán amparadas por el elementalísimo principio jurídico a la vez que aritmético, según el cual a la suma de todos los coherederos corresponde íntegramente la titularidad sobre el patrimonio hereditario y sobre las cosas individuales que la integran.

(6) Age 2004/02/26 : Denuncia la recurrente el particular de la sentencia impugnada que no procede la adjudicación interesada por no haber lugar a liquidar la sociedad de gananciales, al no haberse determinado el activo y pasivo de la misma, y como consecuencia su haber líquido, dando por agotada la acción declarativa ejercitada por la demandante con su reconocimiento de única y universal heredera y con la aceptación parcial del carácter ganancial de la relación de bienes contenida en el suplico de la demanda. Dispone el artículo 1344 del Código Civil que mediante la sociedad de gananciales se hacen comunes para el marido y la mujer las ganancias o beneficios obtenidos indistintamente por cualquiera de ellos, que les serán atribuidas por mitad al disolverse aquella. La Sentencia del Tribunal Supremo de 24 de Octubre de 1990, expresa que los gananciales no existen hasta que no tiene lugar la liquidación de la sociedad conyugal. La Sentencia de 12 de Junio de 1990 señala dicho precepto como momento de la división, determinación y atribución consiguiente, de lo que a cada cónyuge corresponde en concepto de ganancial, el de la disolución de la sociedad; y es que en verdad, mientras dicha sociedad, constituida por marido y mujer, subsista, se mantiene una comunidad que responde a aquella denominada de mano en común o manos reunidas, de la técnica germana, sin atribución de cuotas, muy distinta a la comunidad romana, en cuanto a la gestión y disposición de los bienes considerados o presumidos como gananciales, por el artículo 1375 del Código Civil conforme al cual corresponde conjuntamente a los cónyuges. El artículo 1404 del Código Civil, establece que hechas las deducciones en el caudal inventariado que prefijan los artículos anteriores, el remanente constituirá el haber de la sociedad de gananciales, que se dividirá por mitad entre marido y mujer o sus respectivos herederos. La resolución de la Dirección General de los Registros de 3 de Junio de 1986, declara que por el hecho de la disolución, artículos 1344 y 1404 del Código Civil, a cada cónyuge (o herederos en su caso), se le atribuye una mitad en el conjunto patrimonial en liquidación pero la atribución a uno u a otro de bienes concretos sólo sucederá como consecuencia de la última operación divisoria, es decir, la

adjudicación de bienes. Lo expuesto hay que relacionarlo con la prevención del artículo 1051 del mismo Código, cuando dispone que ningún coheredero podrá ser obligado a permanecer en la indivisión de la herencia, a menos que el testador prohíba expresamente la división. Pero, aun cuando la prohíba, la división tendrá siempre lugar mediante alguna de las causas por las cuales se extingue la sociedad. Y se invoca esta relación en virtud de interpretación jurisprudencial hecha respecto de este precepto legal. Así en Sentencia de 16 de Febrero de 1987, se declara que en la hipótesis de heredero único (la de la causa), huelga la partición hereditaria en cuanto el testamento es, por sí sólo, título traslativo del dominio de los bienes relictos al confundirse en tal supuesto el derecho abstracto sobre el conjunto patrimonial hereditario con el derecho concreto sobre cada uno de los bienes individualizados. Y aún más, y en cuanto al caso que nos ocupa, la Sentencia de 2 de Febrero de 1960, si bien declara que no debe confundirse la liquidación de la sociedad conyugal con la partición de la herencia, porque son operaciones distintas y no recaen sobre los mismos derechos, toda vez que por la primera se trata de determinar las aportaciones de ambos cónyuges, satisfacer las deudas y cargas de la sociedad conyugal y proceder a la división del haber partible transformando la cuota ideal de cada interesado en otra real y efectiva, mientras que la segunda sirve de cauce para adjudicar el caudal hereditario del difunto a través de una serie de operaciones, si bien suele coincidir aquélla liquidación con la partición de bienes de uno de los cónyuges.

